

BERRIGARA

104. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1993, apirilak 23

SANTA
MARINA
PARROKIKO
DORREKO
HARRIA
ALEMANIAN
AZTERTUKO
DUTE




ELORREGI
AUZOAK
SAN
PRUDENTZIO
JAIK
OSPATUKO
DITU
ASTEBURUAN



KIROLAK

BERGARARRAK
EUSKAL LIGA
PELOTA
TXAPELKETAKO
KADETE
TXAPELDUNAK




**IKASKETA
BIDAIK:
PLAZER
BIDAIK**

THE



LOOK

Burberrys
OF LONDON



egizabal



CARTUJANO

Dr. MARTENS autentikoak eta PANAMA JACK

LANBIDE HEZKUNTZA ESKOLA

IEE (REM) 1. zikloa A, B, D
ereduetan

**H
E
Z
I
K
E
T
A**

**E
S
K
A
I
N
T
Z
A**

BATXILERGOA:

**Administrarritza (BAG)
Tekniko Industriala (BIT)**

**MODULO III FABRIKAZIO
MEKANIKOA:**

LANBIDE HEZIKETA:

**Administrarritza
Elektrizitate / Elektronika
Mekanika**


GORLA

ELEKTRAGINTZA

- INDUSTRIARAKO INSTALAKUNTZAK
- ETXEETARAKO INSTALAKUNTZAK
- SEGURITATE ALARMAK
- AUTOMATISMOAK
- MAKINEN BERRIKUNTZAK
- ABIADURA ERREGULATZAILEAK

Mugerza, 3 BERGARA
☎ 76 19 07

**URTEKO
25
ESPERIENTZIA**



BERRIGARA asteakaria
Tfnoa. eta Faxa: 76 03 97 Errotalde
jauregia, 20.570 Bergara

Argitaratzailea:
Jardun Elkartea. Masterreka, 13
Bergara. ☎ 76 08 19

Babealea: Bergarako Udala.
Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
eta Mikel Elkorobereziabar.

Maketazioa:

E. Azkarate eta E. Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:
Alex Azkarate eta Edurne Arenaza.
☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex
Labaien.

Kolaboratzaileak: J. A. Mikeo,
Esteban Plazaola, M. A.
Elkorobereziabar, J. M. Elxepuru, J.
Oregi, A. Urzelai, M. Laskurain, N.
Alzela, A. Lete, J. A. Bengoa, M.
Lizarralde, Monika Belastegi,
Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña,
Asier Madinabestia, Josune Iñarra
eta A. M. Goenaga.

Argazki laborategia:

Pol-Pol Argazki Taldea eta Kifü.

Komikia eta marrazkiak: Josu
Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati.)

Banaketa: Txantxangorri Taldea.

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 3.300 ale.

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo sailaren laguntza jaso du

PROTAGONISTAK

GIMNASTAK

Ariznoa Gimnasia Erritmiko Elkarteko benjamin taldea eta, infantiletan, Ezozi Artetxebarria, Nere Mendizabal eta Itziar Lopez Kirol Eskolarreko finalerako sailkatu ondoren (maiatzak 15 eta 22an), bergarar gimnastak astebukaeran ere protagonistak izan genituen

Eibarren jokaturako Gipuzkoako Txapelketan, infantilen kategorian Amaia Ortiz de Zaraketek Euskadiko Txapelketarako txartela lortu zuen, 4. postuan sailkatu ondoren. Lorea Askasibar, berriz, 12. geratu zuen.

Juniorretan Amaia



Arrieta eta Ana Sebalek lehen postua eskuratu zuten eta Saioa Garitano 4.a izan zen, hirurak maiatzaren 2an jokaturako den Euskadiko Txapelketan parte hartuko dutela.

Ariznoako ardura-dunek positibotzat jotuzte emaitza hauek.

Ariznoako 4 gimnasta Euskadiko Txapelketan izango dira

ITURRI ONETIK

I.A.T.rako hiru eskari

Ibilgailuen Azterketa Teknikorako Bergaran eraiki behar den tailerrerako hiru eskari jaso dira dagoeneko. Epea maiatzaren 26ra arte zabalik egongo da, uztailaren lehen egunerako adjudikazioa egingo da eta Gabon ingururako zabalik izango da. Esan behar da, Ibilgailuen Azterketa Teknikoa egingo den tailerlean 15 lagun inguru arituko direla lanean eta guztiak derrigorrez bergararrak izan beharko dutela.

ESAN DUTE

"Perurenaren jasoaldia guztiz grazizkoa izan ez arren, balekoa izan zela esan daiteke. Epaileak hala eman zion. Aurreko asteko jasoaldiarekin parekatuz dudarik ez traketsagoa izan zela. Baina hor dago egin duena".

ANDRES OSA

"SAKONA"

Herri Kiroletako berriematea
EGIN

"Enpresetako ugazabekin hitz egin ondoren, hauek esaten dute jendea nahiko maila eskasarekin joaten dela eurongana. Jendea azkar asko animatzen da ikasketak uztera eta "Iana topatu behar dut" esanaz eta nik esaten diet: "Non?". Aukerarik ez dago".

MARIJE UNAMUNO

Udaleko Enplegu Teknikaria
ARIZ-ONDO

Atsedeen zentrua
LOKARTU
Koltxoi-Denda
Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

EZPELETA
etxea

Harizko eta kotoizko goimailako izara eta mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

ZUBIETA

elektragintza

✓ Motorren bobinak eta
✓ Era guztietako instalakuntzak
Kruz Gallastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48

**FORTALEZA INFERNAL**

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30. eta
22.30.**EL RIO DE LA VIDA**Igandea: 17.00, 19.30 eta
22.15.

Astelehena: 19.30.

**LEOLO**

Osteguna: 19.30.

Zinea

▼▼ Etorkizunean kokatuta, bikoteek seme bakarra eduki ahal izango dute. John Brennick (**Christopher Lambert**) eta Karenek (**Loryn Locklin**) mila arazo izango dituzte bigarren bat izan nahi izatean.

▼▼ **Robert Redford**ek **Norman Mc Lean**en nobela autobiografikoa pantailaratu du. Bertan, 1910 eta 1935 urte bitartean, Montanara joandako familia emigrante baten bizitza kontatzen zaigu. **Brad Pitt** eta **Tom Skerrit**ekin.

▼▼ Filme kanadiar honek lehen saria lortu zuen Valladolideko azken zinemaldian. Bere protagonista, eromenak menperatutako familia baten inguruan, amets mundu batean biziko da. **Jean Claude Lauzonek** zuzenduta.

Erakusketak

▼ **Taun-Taun** kolektiboaren erakusketa apirilaren 29tik maiatzaren 9ra Kultur Etxean. Ohizko ordutegian.

Musika

▼ **Requiem** talde bergararrak kontzertu bat eskeiniko du datorren ostiralean, hilak 30, Olabe-riako jaietan.

Farmaziak▼ **Larunbata 24:**

Estella/Ruiz (Arrasaten gauz).

▼ **Igandea 25:**

Estella/Morales.

▼ **Astelehena 26:**

Mozos/Azkoaga.

▼ **Asteartea 27:**

Camacho/Español.

▼ **Asteazkena 28:**

Puy/Corcuera.

▼ **Osteguna 29:**

Guallar/Irizar.

▼ **Ostirala 30:**

Estella/Amezua.

Ogia▼ **Igandea 25:** Mizpildi.**MEMESA****IRIMO****SKF****phantom**

Arrasate 79 42 22

Artxabaleta

Ikuskizunak

▼ **Hitzaldia:** *Por una espiritualidad de compromiso por la justicia* asteartean, hilak 27, 8etan UNEDen. Hizlaria: Jose Ignacio Calleja.

▼ **Kalabaza Tripontzia** haurrentzako bideo emanaldia larunbatean, hilak 24, 11etan Kultur Etxean. JARDUNek antolatuta.

▼ **Robin Hood** filmea igandean, 11.30etan, matinallean Novedadesen.

▼ **Ñake** antzerki taldea igandean, hilak 25, arratsaldeko 7etan Bergarako Gaztetxean.

Kirolak

▼ Eskubaloia:


- *Bergara-Leitzaran* (jubenil neskak). **Larunbatean** 17.30etan.
- *Bergara-Usurbil* (jubenil mutilak). **Larunbatean** 18.45etan.

▼ Futbola:

- *Bergara-Billabona* (lehen mailako infantila). **Larunbatean** 10.45etan Ipintzan.
- *Bergara-Hernani* (lehen mailako kadetea). **Larunbatean** 12.15etan Agorrosinen.
- *Bergara-Pasaia* (preferente). **Larunbatean** 8etan Agorrosinen.

Aukeran

▼▼ Tolosako **Hodei abesbatzak** kontzertua emango du larunbatean arratsaldeko 8etan Zabalotegiko aretoan. 1987an sortutako Hodei haur abesbatza, 40 neska-mutikok osatzen dute eta David Azurza Bergarako Orfeoiko zuzendari berria denak zuzentzen du 1989a ezkerotik. Beraz, tolosar haur kantariak zuzenean ikusteko aukera paregabea, larunbatean.



- *Bergara-Aretxabaleta* (2. mailako jubenila). **Igandean** 11.30etan Ipintzan.
- *Bergara-San Ignacio* (lehen mailako jubenila). **Igandean** 16.30etan Ipintzan.


▼ Saskibaloia:

- *Bergara-Zumaia* (jubenil mutilak). **Igandean** 12etan Kiroldegian.

▼ Pelota:

- Elosuko Pelota Txapelketa (alebinak eta beteranoak). **Igandean** 11.30etan Elosun.
- *Bergara-Beasain*. Herri Arteko Pelota Txapelketa. **Ostiralean** 22etan Frontoian.
- *Bergara-Elgoibar*. Deba Arroko Txapelketa. Asteazkenean 8etan Frontoian.

5



PROFESIONALAK

- Intxaurren-Astarloa/ Badiola II.a-Andueza VI.a.
- Ladutxe-Retegi IV.a/ Coca-Aldazabal II.a.
- Gabilondo-Andueza V.a/ Kalonge-Alberdi III.a.

Larunbatean arratsaldeko 4 t'erdietan Bergarako Udal Pelotalekuan.

DENA
100etik
ZURE OPARIENTZAKO
Simon Arrieta, 3

MINER
ardak
Biltegi telefonoa: 76 41 41

Ardo onak, jakina

Patxi Olabarriari erantzunez

Zure gutuna irakurri ondoren, harrirtuta gelditu nintzen hitzarmeneko lehen urtean ezer ez dela egin irakurtzerakoan.

Ez dakit zertan oinarritzen zaren horrelakoak esateko, gure datuen arabera egoera asko aldatu baita lehen urte honetan, nahiz eta gauza asko gelditzen diren oraindik egiteko.

Ondo iruditzen zait zure eritzia azaltzea, baina eskatzen dudana gauza bakarra egia ematea da. Urtebetean gauzak asko aldatu dira, talde gehienek egin baitute aurrera, hauetariko batzuk gainera erdara hutsez funtzionatzetik euskara hutsez funtzionatzera pasatu direlarik. Denok dakigu taldeetako partaideen euskara-maila ezberdina dela, baina kontutan eduki behar duzu behar bada zuretzat txikikeriak diren gauzek esfortzu handia eskatzen diola askori. Ezer ez dela egin esaten duzunean, jende askoren lana eze-rezean uzten duzu, egiten dituzten ahaleginak baloratzeke.

Kontutan izan behar duzu hitzarmenaren bidez barne-funtzionamendua, taldeen arteko harremanak eta haurrentzat eskolaz kanpo antolatzen diren ia haurdierak bideratzen direla eta badagoela plangintza bat lan hau egiteko.

Beste gauza bat da taldeetako partaideen artean ahozko harremanetan, harreman informaletan, kontrolatu ezin diren horietan, zuk eta nik nahiko genukeena baino aldaketa txikiagoa emango zela. Baina, ez dugu inozoak izan behar. Edozeinek daki urteetan zehar beren harremanak erdaraz izan dituzten pertsonak ez dituztela goizetik gauera ohiturok aldatzen, besteak beste, gaitasuna ere galduaz joan direlarik. Baina, hortik ondorioztat ateratzea ezer ez dela egin, ximplekeria handia iruditzen zait.

Besterik gabe, hitzarmena sinatu eta euskaraz funtzionatzeko ahaleginak egiten diharduten guztiei bide horretatik jarrai dezaten animatuz.

Elisabet Payros
Hitzarmeneko teknikaria

Gutunak sailera bidalitako kartak ezin izango dira 25 lerro baino luzeagoak izan eta bidaltzailearen izen-abizenak argi eta garbi jarri behar dira.

Tiira ba!



Josu Okina

Txotxongiloen Mostra

Datorren ostegunean, hilak 29, Txalaparta sarreratxo baten ondoren, Bernardo Atxaga eta Juan Martin Elexpuru idazleek Bergarako II. Nazioarteko Txotxongiloen Mostra inauguratuko dute Kultur Etxean.

JARDUNeko Batzarra

JARDUN Elkarteak dei egiten die bere bazkide guztiei asteartean, hilak 27, arratsaldeko 7retan JARDUNeko lokalean (Masterreka 13) egingo den Batzar Orokorrean parte hartzeko. Besteak beste, Zuzendaritza Batzorde berria aukeratuko da.

Santa Marina dorreko harria Alemanian aztertuko dute

Santa Marina parrokiako kanpandorreko harriaren egoera kaskarra dela eta, joan den astelehenean, Gipuzkoako Diputazioak eskatuta, Alemaniako teknikoak izan ziren harriaren muestra bat hartu eta datozen egunetan beronen ikerketa Alemanian burutzeko asmoz.

Erosioa eragile nagusia

Muestra hori sakonki aztertu ondoren, teknikoek harriaren babeserako komenigarria den tratamendua gomendatuko dute eta egin beharreko berritze lanak zehaztuko dituzte.

Santa Marina 1542 eta 1607 urteen artean eraiki bazen ere, XVIII. mendearen hasieran haunditze lanak egin ziren, 1701. urtean dorrea eta korua



Xabier Zubizarretak errosioak harrian izandako eragina erokutsi zigon.

gehituz. Aipatutako dorrea barrokoa dugu eta errenazentista, barrokoa eta neoklasiko estiloak nahasten ditu.

Orain, errosioa eta kutsaduraren eraginez, nahiko egoera txarrean dago eta, horrez gain, zenbait elementu ere guztiz galdu dira, esate baterako kornisen gaineko bola apaingarri ba-

tzuk. Diputazioak erakuntza historikoen berriztapenerako martxan jarritako programaren barne egingo da azterketa eta ondorengo berriztapena.

Analisi hauek egiteak 1.917.840 pta.ko aurrekontua du eta, behin emaitzak jakin ondoren, berrizketa lanak burutuko lirarteke.

Elorregiko jaiak

Elorregi auzoak San Prudentzio jaiak ospatuko ditu astebukaeran. Gaur ostirala, gaueko 10etan, Tute eta useko III. Alkartasuna Txapelketaren finalak jokatuko dira. Larunbatean, hilak 24, arratsaldeko ordubietan auzo bazkaria egongo da, Jota kantariak, Lizarrako "Alegria Navarra" taldea eta Gurutze eta Edurne trikitilariekin.

uean, 10etan, erromeria Pelotalekuan. Igandean, Meza Nagusia 11etan, pelota partiduak ondoren, txingara eta amaitzeko ezkondu eta ezkongabeen arteko atira desafiua jokatu da. Amaitzeko, asteartean, San Prudentzio eguna, Meza Santua izango da 19.00etan.



Amets



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
- Zango erremolkeak.
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak.

Informazioa: ☎ 78 25 92 / 78 19 50
AMETS TAILERRAK
 Berezano auzoa OÑATI

PELI NARBAIZA IBARZABAL



Naziozko Seguruen Erakunde Nazionala

Agentea Bergaran

Aseguru orokorrak

Matxiategi, 3 - 5.B BERGARA ☎ 76 47 57

Irratinobela lehiaketa


Euskadi Irratiak euskal idazle guztiei zuzendutako irratinobela saria konbokatu du. Parte hartzaileek 15/20 minutu bitarteko iraupeneko 50 kapituluko irratinobela baterako argumentuaren sinopsia eta lehen 3 kapitulu- en gidoi teknikoa eta literarioa aurkeztu beharko dute maiatzaren 21a baino lehen. Irabazleak 1.500.000 pta. ko dirusari gordina jasoko du.

50. urteurrena

Aurten 50 urte betetzen dituzten bergarrek beren anaiarteko eguna ospatuko dute maiatzaren lehen. Ordubetatako mezaren ondoren, bazkaria egingo dute Antxonin. Interesatuak 762290 (Maribel) telefonoan eman dezakete izena apirilaren 28a baino lehen.

Xake txapelketa

Ostiraletik aurrera, hilak 30, 20 urtetik beherakoentzako Xake Txapelketa jokatu da Xake Elkarteko lokaletan. Parte hartu nahi dutenek bertan eman beharko dute izena asteazkena baino lehen.



Agustin Gurrutxagaren argzki hau koloretako herriko argazki onena izan zen iaz.

Bergara Hiria argazki lehiaketa

Lanak maiatzaren 20rako entregatu beharko dira

Pol-Pol Argazki Taldeak, Udaren laguntzaz, IX. Bergara Hiria Argazki Lehiaketa antolatu du. Bertan Euskadin bizi den edozein afizionatuk har dezake parte eta zuri-beltzeko eta koloretako kategoriak desberdinduko dira.

Gaia librea izango da eta bi kategorietan sari berdinak banatuko dira: lehen saria (20.000 pta. eta trofeoa), bigarren saria (15.000 eta trofeoa), hirugarren saria (10.000 eta trofeoa) eta herriko onena (10.000 eta trofeoa). Era berean, Bergarako paisaia edo arkitektura

adierazten duen argazki onenarentzat ere sari berezi bat izango da (10.000 eta trofeoa).

Kategoria bakoitzeko lau argazki aurkeztu ahal izango dira Bergarako bereziaz gain eta lanak (30x40 zm. ko kartulinetan eta atzekaldean egilearen datuak jarriz) maiatzaren 20a baino lehen Kultur Etxera bidali beharko dira. Antolatzaileek izendatutako epaimahaiak 22an emango du ezagutzera erabakia eta maiatzaren 28tik ekainaren 6ra arte Kultur Etxean izango dira ikusgai lan onenak.

HARATEGIA
ANTIA
URDAITEGIA
 Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
 Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09



Ziripot
 Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

IBARGUREN PENTSUAK
Biona pentsuen biltegia.
Bioter produktoak eta haziak.
 San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA



ITURKINTZA **ITURKINTZA**
ARISTEGI - TOLA
 ITURKINTZA - BEROGAILUAK - GASA
 Bolu, 26 behea ☎ 76 54 17



Araudiaren arabera, goizeko 4retan itxi eta goizeko 8etan zabalduko dira txoznak.

Jaietako txoznen araudia

Udalak agindutako tokietan bakarrik jarri ahal izango dira

Bergarako Udalak Pentekoste jaietako txoznak arautuko dituen erregelamendua jakitera eman du. Bertan jasotzen diren baldintzen arabera, txoznak Udalak agindutako tokietan bakarrik jarri ahal izango dira eta ez beste inolako lokaletan.

Bergarako edozein elkarte eta taldek txoznak jartzeko eskariak aurkez ditzakete eta Udalak, eskari guztiak aztertu ondoren, txoznak nori eman, eta zenbat jarriko diren erabakiko du tokien zozketa eginez. Txoznak jarri behar dituztenek

jaiak hasi baino hiru egun lehenago has daitezke muntaiarekin eta jaiak amaitutakoan, berriz, ostegunerako erretiratu beharko dira. Era berean, arautegian jasotzen denez, txoznetan tabernetan saldu ohi diren edari eta janariak bakarrik salduko dira, kamara frigorifikoak izan beharko dituzte eta edalontziak plastikozkoak izan beharko dira. Ordutegiari dagokionez, goizeko 4retan itxi eta goizeko 8etan zabaldu ahal izango dute eta, azkenik, musika 75 eta 85 dezibelio arteko potentziaz jarriko da.

Errolda ikusgai

Udalerriko sekzio guztietako Haultesle-Erroldak, 1992eko urtarrilaren 1ean zituen datuekin jendeaurrean egongo dira apirilaren 26ra arte Bergaran eta Elgetako Udaletxetan. Ordurarte edozein herritarrek egin dezake zerrendak zuzentzeko eskaria Udaleko Idazkaritzan.

Gorlako batzarra

Igandean, apirilak 25, Gorla Alpino Taldeko bazkideek Batzar Orokorra egingo dute Gorlako errefuxiuian. Lehen deialdia goizeko 10etarako iragarrita dago eta *quoruma* ez balego orduerdi beranduago egingo litzateke bigarren deialdia. Azkenik, hirugarrena goizeko 11etan, bazkideen kopurua edozein izanda.

JARDUN aktore bila

JARDUN Elkartek 8 urtetik 20 urtera bitarteko bi gazte eta 45 bat urteko beste pertsona nagusi bat behar ditu bideo bat grabatzeko. Interesatuak astelehenean, hilak 26, arratsaldeko 5 terdietan Kultur Etxean aurkez daitezke.

Pepelu

Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.

Tfnoa: 76 43 07

ARRASATEARRA

Gure berezitasuna bazkariak.
Eguneko menua daukagu.

Taberna

Zublaurre 22, Tfnoa: 76 20 19 BERGARA

EXLUKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskoziuri 6, ☎ 76 51 62
BERGARA



KORTA-ZAR

Txokolategia

Pintxo eta ogibitaratekoen
espezialitatea

HEMENDIK AURRERA OSTIRALETAN
GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK

Barrenale 16, ☎ 76 20 62

ZULOA

Aurten 10 urte beteko ditu

Zuloa elkarteak sortzeko, 20-25 bazkideetako elkarteak sortu nahi zuen lagun talde bat elkartu zen hasieran. Jende gutxiko elkarteak sortu nahi zuten, baina lokalaren erosketak zekartzan gastu handiak zirela eta, ezinezkoa izan zen.

Honela, gaur egun Zuloa elkarteak 83 bazkide batzen ditu. Bazkide guzti hauen batzabesteko adina 38 urtetakoa da. Elkarte gaztea beraz. Zuloan ez dago ohorezko bazkiderik, baina badaude egoera berezian dauden bi bazkide. Bi bazkide hauek kanpora joanak dira bizitzera. Bazkide izaten jarraitzen dute, baina kuota txikiagoa ordaintzen dute.

Elkarte honetan urtean 3.000.000 pztako kaja batzen dute kontsumoan. Gainera, Anton Maiztegi eta Juan Luis Arregik aipatu digutenez, kontsumoa goraka doa Zuloan. Eta honela jarraitu dezala!

Falta kontutan, batzabesteko % 3 inguruan ibiltzen dira.

Zuloa elkarteko bazkideek hiru hilabeteko 4.500 pztako kuota ordaintzen dute. Hortaz gain, beste kuota bezalako bat ordaintzen dute lokala erosi zuteneko prestamoa ordaintzen joateko. Jadanik ez zaie asko gelditzen prestamoa ordaintzen amaitzeko. Hiru urte barru beraien izango da elkarte osoki. Pozik egoteko bezalako da hori.

Zuloa elkarteak herriko ospakizunetan ere parte hartzen du. Honela, Haurren Egunean, San



Zuloako bazkideak elkartean bertan.

Martinetako tanborradan, urteroko margo txapelketan... besteak beste.

Sukaldean ondo moldatzen diren artistak ere badaude. Izenik ez digute eman, asko omen direla eta.

Elkarte honetako bazkide dira Abdon Juaristi eta Laskurain margolariak eta elkarteak cuadro politiz dute txukundua.

Sustoak ere izan dituzte elkartean. Behin sukaldean duten parrilan txuleta batzuk gertatzen zebiltzala, su hartu omen zuen. Izugarrizko kea eta txinpartak hasi eta auzokide batek, larriturik, ertzainei deitu zien. Hauek azaldu zirenerako sua jeitsia zegoen, eta sustoan gelditu zen dena.

Ainboa Lete

FITXA TEKNIKOA

SORTU: 1983.

BAZKIDEAK: 83.

HELBIDEA: Irala, 6.

PRESIDENTEA: Juan Luis Arregi.

ELKARTEAREN EGUNA: Batzar Orokor eguna.

URTEKO KUOTA: 18.000 pzt.



- Fotokopiak koloretan
- Publizitate-dun kamisetak
- Oihal inprimaketak

AKORT

San Lorentzo, 7
behea. Tel. 76 50 39

KAILASH ZENTRO ESOTERIKOA

Parasikologi Zientzien Instituto
Hispano Amerikarrean
diplomatutako profesionalak

Tarota • Hipnosia • Erresonantzia

Tfnoa: 76 01 31 (Iris)



POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51

Bergarako ikasleak aurtegoan Europa, Asia, Afrika eta Penintsulan zehar izan ditugu. Guztira bederatzi bidaia. Pozik etorri dira gehienak nahiz eta San Martin de Agirre eskolakoek oraindik itxoin egin beharko duten bidaia egiteko. Orain, beste ikasle batzuk, datorren urteko ikasketa bidaia antolatzen hasi beharko dute. Beraz, hurrengo erreportaia ikasleek bidaia antolatzeko eta nora joateko erreferentzia izan daiteke.



Langide Hezkuntza Eskoloko neska taldea Turkian.

Ikasketa bidaiak: gusto eta kolore guztietakoak

Institutotik Marokora 20 ikasle joan ziren, bertan 11 egun pasa dituzte eta bidaira joandako neska batzuk kontatu digutenez "Marruecosen oso ondo pasatu dugu, nabiz eta lehen egunean, Tangerren, nabiko esperientzia txarra izan genuen marrokiarrekin, zeren gauean hotelerantz gindoazenean gure atzetik etorri bait ziren, eta guk korrika batean hotelara joan beharra izan genuen,

Tangerreko mutilak nabiko txerriak dira eta".

Tanger utzi ondoren Rabathera joan ziren eta han bertakoekin ez zuten arazorik izan "Rabath oso polita da, han monumento pila bat ikusteko aukera izan genuen eta gainera bertakoak ere normal tratatzen gintuzten, Rabath ikusgarria da benetan".

Talde honetan 20 ikasle joan ziren eta Marokko ikusteko 11 egun izan zituzten,

gosalduta eta lo hoteletan egiten zuten eta hotelak onak izan arren bazuten beraien gauzak "hotelako mantelak eta kubiertok zikinak zeuden eta jateko orduan garbitu behar genituen. Janari aldetik gauza nabiko onak ziren baina espezia gehiegi botatzen zioten eta batzutan jateko gogoa joaten zitzaigun".

Marrakechen ere egon ziren eta bertako Zocoak harritura utzi zituen "jende pila zegoen gauzak saltzen eta

saltzaileak pixka bat astunak izan arren nabiko jatorrak ziren eta gainera denetarik aurkitu genuen salgai, gogoratzen dugu bazegoela gizon bat hortzak saltzen ez dakigu zertarako zen baina benetako hortzak ziren karies eta guzti".

Bidaia bakoitzari 37 mila pza kostatu zaio eta dirua boletoak saltzen, moda desfile batekin eta astero bakoitzak diru kuota bat ordainduz atera dute. Marruecosek opariak

merke erosteko aukera eskeintzen duela jakina da eta ikasleek ere aprobeztatu dute aukera "han erregateatzen gauza pila bat erosi ahal izan dugu erlojuak, larruzko jantziak ea.. guretzat Marruekos sekulako esperientzia izan da eta berriz bueltatzeko desiatzen gaude".

¡Viva Franco!

Lanbide heziketa eskolako 7 neska Estambulera joan dira eta bidaia lau hilabetetan antolatu dute. Bidaia danera 51 mila pzta kostatu zaie, baina euren poltsikotik 12 mila pzta bakarrik ordaindu dute "Gabonen aurretik larunbatero frontoian boletoak saltzen izan gara, ondoren Gabonetan mariskada zozketatu genuen, hori gutxi bada eskola mailan aldizkari bat atera genuen eta gero astero ordaindutako kuotekin Estambulera joateko aukera izan dugu".

Estambulera hegazkinez joan dira eta bertan 7 egun pasa zituzten "lehen egunean gidari batekin ibili ginen eta Bosforo ibaian zehar bidaia bikaina egin genuen, baina gidaria garesti irtetzen zen eta gure kontura ibiltzea erabaki genuen".

Gidaria utzi ondoren ikasle hauek mapa hartu eta Estambul euren kontura ezagutzea erabaki zuten "orduan konturatu ginen hura sekulakoa dela, izugarria da. Han gehienak merkatariak dira, baina beste batzuk, gehienak, kalean koadrilan berbetan edo dadotan jokatzeko

satzen dute eguna, badirudi ez duela lanik egiten".

Estambulen anekdotarik ere izan dute "gu guztiak neskak ginen eta han mutil denak atzetik genituen eta gainera ligatzeko orduan turkiarrek bizkuntzak menperatzen dituzte, han geunden Gran Bazarrean eta saltzaile batek neska polita! esan zigun. Gero Marta Sanchez! Viva Franco! eta horrelakoak ere esaten zizkiguten, baina beti oso amable".

Coffee-Shopak ikaslez beteta

Institutotik eta Lanbide Hezkuntza eskolatik bi autobusetan 93 ikasle izan dira, Paris-

Belgica-Holanda bidaia egiten, eta ikasle hauetako bakoitzak 41 mila pzta ordaindu ditu bidaia egin ahal izateko. Lehen egunean ikasleak Parisen izan ziren eta bertan hainbat pasadizo pasatuz "lehen egunean hotelera heldu eta harrituta gelditu ginen, gure hotela polizia betetik bait zegoen eta galdetu genuen zergatik zeuden han eta Parisen zeuden istiluak zirela eta zeudela bertan esan ziguten. Baina polizia inguratutik egon arren tipobatekin ikasle bat pistola batekin mehatxatu ondoren 12 mila pzta kendu zizkion".

Paris utzi ondoren Belgicarantz joan ziren eta han 4 egun pasatuzten Amberes, Brujas eta Gante bisitatu zituz-

telarik, Belgicako jendeak hobe tratatu dituzte ikasleak. Holandan ere 4 egunez izan ziren eta La Haya, Volemdam eta Amsterdam bisitatu zituzten, ikasleentzat "Amsterdamen gauza asko zeuden ikusteko, baina gauzez Coffe Shopetan pasatzen genuen denborarik gehiena, han oso ondo pasatu genuen, nahiz eta Zaragozako ikasle batzukin hitz batzuk izan genituen".

Gora parranda!

Lanbide Heziketa eskolako eta Institutoko beste talde bat Torremolinosen izan da, Lanbide eskolakoek 11 egun pasa dituzte eta institutokoek 10, bidaia, apartamentuetan 22 mila pzta kostatu zaie eta hauentzat "guk



Lanbide Hezkuntza Eskolakoak Torremolinosen.

"Turkia beste mundu bat da. Badirudi han jendeak lanik ez duela egiten"
LANBIDE HEZKUNTZA ESKOLAKO IKASLEAK

BI URTE T'ERDI INGURU PASA DIRA BERRIGARA LEHEN ALDIZ KALEAN IKUSI GENUENETIK. ORDUTIK, 100-DIK GORA ALE ERE KALERATU DITUGU. ASTEKARIAK HERRITARREN ARTEAN HARRERA ONA IZAN DUELA BEGIBISTAKOA DA, BAINA BERRIGARAREN HARPIDEDUNEK ERREBISTARI BURUZ DUTEN IRITZIA JAKIN NAHI IZAN DUGU. HORREGATIK EGIN ZEN JOAN ZEN GABONETAN HARPIDEDUNEI BURUZKO AZTREKETA. ORRIALDE HAUTAN ERAKUSTEN DIZKIZUGU AZTERKETAREN ONDORIO NAGUSIAK.

IKERKETAREN FITXA TEKNIKOA:

EGILEA:

Nekane Beloki Arizti. Madrilgo Unibertsitate Complutensean Soziologian lizentziatua.

DATA:

1992ko azaroan eman zitzaion hasiera eta 1993ko martxoan amaiera. Kanpo lana abenduaren 20tik urtarrilaren 10era bitartean egin zen.

ESPARRUA:

BERRIGARAKO harpidedunak. Baina hauen artean hainbat salbuespen egin dira: alde batetik, Bergaran bertan bizi direnak bakarrik hartu dira kontutan. Bestalde, instituzio publiko eta enpresa moduan izen emanda dauden harpidedunak ez dira kontutan hartu.

BERRIGARAREN HARPIDEDUN KOPURUA AZTERKETA EGITEKO UNEAN:

3000 harpidedun. Azterketa egiterako orduan, 330 harpideduni egin zaizkie inkestak. Horietatik 294 herrian bizi dira, eta gainontzeko 36ak, berriz, baserri auzoetan (13 Angiozarren, 9 Osintxun, 9 San Juan eta Uberan, eta beste 5 geratzen diren auzoen artean banatuta). Inkestatuak aukeratzeko orduan, harpidedunen zerrenda osoa hartu eta sorteo bitartez aukeratu dira.



Herrietako informazioa jasotzen duten aldizkariak egunetik-egunera ugalduz doaz.

IKERKETAREN HELBURUAK

Helburu nagusia BERRIGARAKO harpidedunen azterketa egitea izanik, helburu zehatzagoak honako hauek: harpidedunen artean BERRIGARAK, prentsa idatzi bezala duen esparrua aztertzea, harpidetzaren arrazoiak aztertzea, harpidedunek BERRIGARARI buruz duten balorazioa jasotzea (eduki aldetik, estilo aldetik, aspektu formalen aldetik, euskararen erabileraren aldetik, auzoen errepresentatibitatearen aldetik,

harpidedunen irakurketa ohiturak aztertzea, BERRIGARAKO harpidedunen ezaugarri nagusiak atzematea).

BERRIGARAKO HARPIDEDUNEN PERFILA

Berrigarako harpidedunen perfila aztertzerakoan, eta sexuari dagokionez, esan dezagun % 52a emakumezkoak direla eta % 48a gizonezkoak. Emakumeak pixka bat gehiago izan arren diferentzia oso txikia da.

Adinari dagokionez, berriz,

BERRIGARAKO harpidedunen batzbesteko adina 40 urte ingurukoa da.

Harpidedunen gehiengoa herrian bizi da (% 89a), orokorrean Bergaran bertan jaiotakoak dira (% 78a) eta ezkonduak gehiengoa dira (% 54a). Ezkongabeak, % 39a.

Ikasketei dagokienez, oinarritzkoak (% 35) edo erdi mailakoak izango lituzke (% 35). Goi mailako ikasketak dituztenak, ostera, % 20a dira.

Orokorrean, lanean ari da (% 50), ikasleak % 18 a direlarik.

Euskarari dagokionez, erdia baino zertxobait gehiago (% 51a) euskaldunzahar alfabetatugabea da eta % 33 euskaldunzahar alfabetatuak dira. Beraz, esan dezakegu, harpidedun gehienak euskaldunzaharrek direla (% 84a).

HARPIDETZAREN ARRAZOIAK

Harpidedunen artean % 22,5a ez da bere kabuz egindakoa, BERRIGARAK egindakoa baizik. Bere kabuz harpidedun egin direnen artean (% 77,5), harpidedun egiteko arrazoi azpimarragarrienak hauek dira: herriko gai eta pertsonen buruz informazioa izatearren (%38), herriko informazioa euskeraz jasotzearren (% 25), herri mailako inizatiba delako (% 16), orhar inetresgarria delako (%12)... Ikusten den bezala ez dago harpidedunen artean arrazoi nagusi edo bakar bat.

HARPIDEDUNEN % 91,5ak ASTERO IRAKURTZEN DU BERRIGARA

Esan dezakegu BERRIGARA jasotzen duten ia guztiek irakurtzen dutela errebista (Harpidedunen % 91,5). % 5,8ak, berriz, batzutan irakurtzen du eta % 2,7ak ez du irakurtzen.

Irakurtzen dutenen artean % 73ak gaia hartzen du kontutan atal bat irakurtzerakoan; % 12ak argazkiak dituen edo ez eta % 7,4ak luzea edo laburra den.

Bestalde, irakurleen artean, % 51ak astebukaeran zehar irakurtzen du; % 25ak ostiralean bertan eta % 20,4ak astean zehar. Argi dago, beraz, gehiengoak (% 76ak) etxean jaso eta berehala irakurtzen duela.

Adina kontutan hartzen badugu, ikusi daiteke harpidedun helduenak (60tik gorakoak) direla errebista sakonkien irakurtzen dutenak eta 10-20 urte bitartekoak direla orokorrean errebista, batez ere gainbegiratzen dutenak.

IA 10.000 IRAKURLE ASTERO-ASTERO

Batzbeste, harpidedun bakoitzeko bi pertsonen irakurtzen du BERRIGARA, hau da ale bakoitzeko hiru pertsonak. Ikerke-

ta egiterako orduan kontutan hartu diren harpidedunak 2.679 zirela kontutan izanda, 8.037 dira BERRIGARA irakurri ohi duten bergararrak. Baina gaur egun harpidedunen kopurua 3.300ekoa dela kontutan hartzen badugu, BERRIGARAKO irakurleen kopurua 10.000tik oso gertu izan daitekeela esan dezakegu.

ATALIK IRAKURRIENAK

Badira atal batzuk besteak baino harpidedun gehiagok irakurtzen dituztenak. Gehiago irakurtzen direnen artean honako hauek ditugu:

1. Atrebentzia ezpada... % 86,1ak irakurtzen du, % 10,8ak gainbegiratu egiten du eta % 0,6ak bakarrik ez du irakurtzen.



BERRIGARAKO banatzaileek errebista ostiralean buzoietan utzi eta berehala jasotzen dituzte harpidedunek. Gehienek ostiralean bertan irakurtzen ohi dute.



Egunkarietan, herrietako edota eskualdeetako informazioa da BERRIGARAKo harpidedunek gehien irakurtzen dutena.

2. Erretratu Zaharra: % 79,6ak irakurtzen du, % 14,2ak gainbegiratu eta % 1,9ak ezer ez.

3. Erreportaia: % 67,2ak irakurtzen du, % 25,1ak gainbegiratu eta % 2,8ak ez du begiratu ere egiten.

4. Asteko berriak: % 66,9ak irakurri egiten du, % 26,9ak gainbegiratu eta % 1,5ak ezer ez.

Harpidedunek gustokoen dituzten atalak ere lau hauek dira, baina ordena zertxobait aldatzen da. Horrela, bada, atalik interesgarrienak:

1. Erretratu Zaharra: % 42,7ari oso interesgarria iruditzen zaio eta % 47,8ari interesgarria. Beraz, orokorrean, % 90,5ari iruditzen zaio interesgarria.

2. Asteko berriak: % 32,3arentzat oso atal interesgarria da eta % 61arentzat interesgarria (% 93,3 biak zenbatuz gero).

3. Erreportaia: % 21,4ak dio oso interesgarria dela eta % 69,9ak interesgarria (guztira 91,3).

4. Inkesta: harpidedunen % 27,5en iritziz oso interesgarria

da eta 57,5aren esanetan, berri, interesgarria (% 85a batuz gero).

IRAKURLEEK ESKATZEN DUTENA

BERRIGARAKo harpidedunen % 48,7ak ez du errebistan ezer faltan botatzen. % 37,6ak, gai ezberdinei buruzko zenbait atal botatzen dituzte faltan, hala nola:

- Historiako atala: artea, arkitektura, Bergararen sorrera,...
- Nekazaritzari buruzko atala: baserritarren albiste eta arazoak.

- Plenoetako berri emango duen atala.

- Musika, antzerkia, bideoari buruzko atala.

- Errezetak

- Kolektibo konkretuei zuzenduriko atalak: gazteak, jubilatuek edo emakumeak.

Goian aipatutakoak faltan botatzen dituztenak baldin badira ere, harpidedunen % 77,5ak ez lioke ezer kenduko BERRIGARARI.

Esan dezagun azkenik, harpidedunen % 4,7ak errebistaren alderdi formala kritikatu duela: sakontasun gehiago edota kaze-tal zentzu haundiago izatea adi-

bidez.

BERRIGARA: ESTILO ALDETIK GUSTOKO ERREBISTA

Estilo aldetik esan daiteke BERRIGARA gustokoa dutela harpidedunek. 1 etik 4ra doan eskalan, non 1a "asko gustatzen zait" den eta 4a "ez zait batere gustatzen", orokorrean 1,8ko balorazioa ematen diote harpidedunek BERRIGARARI. Estilo aldetik hainbat aspektu hartu dira kontutan eta hona hemen emaitzak: izena (1,6), argazkiak, letra moeta, letra tamainua, formatoa eta papera (1,9) eta marrazkiak eta orri kopurua azkenik (2,1). Hemendik hainbat ondorio atera daitezke:

1. Izena da estilo aldetik gehien gustatzen dena.

2. Orri kopuruak gehiago eskatzen dituzte.

3. Paper birziklatua erabiltzeko eskatzen dute.

BERRIGARAKO EUSKARA

Harpidedunen % 48,6ak oso ongi ulertzen du astekariak erabiltzen duen euskara eta % 31,2ak nahiko ongi. Honen arabera, esan daiteke harpidedunen % 80ak, gutxigorabehera ulertzen duela BERRIGARAKo euskara orokorrean eta gainontzeko % 20ak ez.

Baina nortzu dira BERRIGARAKo euskara ulertzen ez duten horiek? (aldameneko orriko TAULAN ikus dezakezue).

Taulan argi ikusten den moduan, adina igotzen den heinean BERRIGARAKo euskara ongi ulertzen dutenen portzentaia asko jeisten da. Hau da, zenbat eta helduagoak izan, orduan eta zailtasun gehiago dituzte BERRIGARAKo harpidedunek euskara ulertzeko. Esan dezagun euskaldunzahar alfabetatugabeen kopurua igo egiten dela adin horietan, hau da, zenbat eta adinez zaharrago, euskaldunzahar alfabetatugabeen kopurua haundiagoa dela.

Euskara batua eta Bergarako euskarari buruz duten iritzia buruz, esan behar da Bergarako euskara erabiltzearen aldeko jarrerara nabaria dela (%60a Bergarako euskara erabiltzearekin

ados dago], bai bakarrik edo euskara batuarekin nahasturik. Azpimarratzekoa da harpidedunen % 30a bakarrik dela euskara batu hutsean idaztearen aldekoa.

Analisi honekin amaitzeko esan dezagun harpidedunen % 59ari lagundu diola BERRIGARAK euskaraz errezago irakurtzen. % 50ak, bestalde, zera dio: euskaraz irakurtzeko ohitura BERRIGARA irakurtzearekin gehitu egin zaiola.

HERRI MAILAKO INFORMAZIOA

Zein mediotara jotzen dute BERRIGARAKO harpidedunek herri mailako albisteak jaso nahi dituztenean?

Datuen arabera esan dezakegu harpidedunen % 48,8ak BERRIGARARA jo ohi duela normalean herriko albisteen bila. BERRIGARAREN presentzia nabarmena bada ere, EL DIARIO VASCOK ere badu bere lekua, harpidedunen % 38,3ak jotzen baitu egunkari honetara herri mailako albisteen bila. ARIZ-ONDO, berriz, harpidedunen % 17ak aukeratu du, baina beti ere BERRIGARA eta EL DIARIO VASCOREKIN batera.

Aipagarria da, bestalde,

egunkariak irakurtzerakoan BERRIGARAKO harpidedunek gehien irakurtzen duten atala herriko edota eskualdeko albisteei buruzkoa dela gehien irakurtzen dena (% 93,8ak irakurtzen ohi du); ondoren, Euskal-Herriari buruzko notiziak (% 88,3); eta hauen atzetik datoz estatuko (% 69,2) edota nazioarteko notiziak (% 54,2).

Atal hauek aparte, gehien irakurtzen diren albisteak kulturari buruzkoak dira (harpidedunen % 71,8ak irakurtzen ditu). Gutxien irakurtzen direnak, berriz, ekonomiari buruzkoak dira (% 35,1).

Egunkari guztien irakurleen artean mantentzen da banaketa hau, hau da, edozein periodiko irakurtzen delarik ere, orokorrean gertuagoko notiziak dira gehien irakurtzen direnak.

URTEKARIA ETA GIDA

Harpidedunen % 45ak erosi du Urtekaria. Zer iruditzen zaien galdetzean, % 48ak ez du erantzun eta erantzun dutenen artean % 95ari interesgarria iruditu zaio orohar.

Gidari dagokionez, % 72a izan da bere iritzia emateko gai eta hauen artean % 91ari interesgarria iruditu zaio.

ASTEKARIA

Harpidedunak maiztasunarekin gustora daude orokorrean. % 90,8ari ongi iruditzen zaio astekaria izatea

BALORAZIO POSITIBOA

Orokorrean eta 1etik 10era doan eskala batetan 7,6ko balorazioa ematen diote BERRIGARAKO harpidedunek errebistari.

ERREBISTA IREKIA

Harpidedunen % 94aren ustez BERRIGARA errebista irekia da, ez da inongo alderdi politikorekin identifikatzen

EUSKARA BULTZATZEN DUEN ERREBISTA

BERRIGARA nola definituko luketen galdetzean, % 75,2ak "euskara bultzatzen duen errebista informatzaile" bezala definitzen du.

ERREBISTA ORDAINTZEKO PREST

Harpidedunen % 88,9a egongo litzateke BERRIGARA jasotzearen orde zerbait ordaintzeko prest. Batzbestea 100 pzt. aleko.

ADINA	BERRIGARAKO EUSKARA OSO ONGI ULERTZEN DUTENEN %A
10 - 20	% 78
21 - 30	% 56,5
31 - 40	% 52,1
41 - 50	% 44
51 - 60	% 20,5
61 - 70	% 32,1



Aranzadi Ikastolako neska-mutilak Formigalen eskiatzen izan ditugu.

bidaiara parranda bila joan ginen eta han sekulako martxa aurkitu genuen, gauzez diskoteketan ibiltzen ginen eta egunez lo egiten genuen, zeren eguraldia ere ez zen oso ona izan eta hondartzara ezin izan ginen joan".

Ikasle hauek bidaira joateko kuotak ordaindu dituzte, boletoak saldu eta gainera ambientado-

reak ere saldu zituzten. Lanbide eskolako taldea parranda eginez gain, Andaluziako hainbat lekutan ere izan da (Mijas, Algeciras, Marbella, Tivolin ea...).

Eskia, kultura eta eguzkia

Aranzadi ikastolako ikasle taldea Jacan izan

da, azkenaldian Aranzadiko taldea eskiatzera joan ohi da eta Formigaleko pistetan 5 egunetan eskiatzeko aukera izan zuten. Eskiatzeaz gain, gauzez kalera irtetzen ziren, beraiek esaten duten moduan "Jacan gauean giro bikaina zegoen eta elgoibartar batzuen tabernan fenomeno pasatzen genuen, baina ba-

karrik gaueko 11k arte egoten da zabalik eta gero parranda barrakoietan jarraitzen genuen".

Hauei bidaia 23 mila pzta kostatu zaie, barrakoi batzuetan lo egiten zuten eta hango bazkaria ez zen oso ona izaten.

Mariaren Lagundiko ikasleak aste honetan bertan izan dira bidaiari, hauek 4 egun egin dituzte eta 15 mila pzta balio duen bidaiari, Burgos, Segovia, La Granja de San Ildefonso, eta Madrid (hor El Prado eta El Escorial bisitatu dituzte) ikusteko aukera izan dute.

San Martin de Agirre ikastetxekoek, euren aldetik, oraindik ez dute bidaiarik egin, hauek bidaia datorren maiatzaren 24tik 28ra egingo dute, Costa Bravan dagoen Tossa del Marrera joango direlarik. Handik Bartzelonara joango dira, Zooa, Zientzien museoa eta Planetarioa bisitatu dituzte. San Martin de Agirrekoek bidaia 20 mila pzta kostako zaie eta 6. mailatik aurrera ordaindutako asteroko kuotarekin ordainduko dute.

MARKIEGI Automobilak




Leizeaga, 1
(San Lorentzo Pol. Ind.)
☎ 76 35 09



- Edozein eratako ibilgailuen karrozeria konponketa
- Mekanika orokorreko zerbitzu berria

ADI ORAIN:
I. I. T. (I. T. V.)rako errebisioa doan
(Direkzioa, frenoak, amortiguadoreak...)



**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.


Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50

Uda hurbiltzean, dietarik egiten al duzu?



Naiara Conde
17 urte, ikaslea

Ez daukat horren beharrik. Normal jaten dut, beharbada gehiago; izozkiak batez ere.



Pello Andrinua
27 urte, langilea

Ez dut jana gehiegi kontrolatzen. Beti igual. Eta ahal dudan kirol guztia eginez.



**ETXE-
-AUNDI**

**Negoio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI



Jose Luis Gomez
24 urte, langilea

Bizitza normala eramaten dut. Neguan eta udan berdin mantentzen naizela esan dezaket.



Usue Azkarate
23 urte, langilea

Urte osoan bezala jarraitzen dut. Hala ere, jendea gehiago zaintzen dela nabari da, batez ere nesken artean.

MAKAILO

Makailau **ETXEA**
kazuelak
gertatzen ditugu

Ibargarai 15

**EDEL
tapizdenda**

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu:

*Alfonbrak, kortinak,
kortinoiak, koltxak,
edredoiak, etab.*

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiانا-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14, BERGARA



MONTEIL

PARIS

eta

CAMACHO

USAINDEGIAK

Opari eder bat egingo dizu

Zure leialtasuna saritzeko, MONTEILEk Udaberri-Udarako bere bildumako koloreak ezagutzeko aukera ematen dizu. Apirilaren 26tik 30era bitartean, eta CAMACHO lurindegian, gure edertasun-kontseilari adituak zuretzat egokienak diren tonuen berri emango dizu. Lagaiguzu aholkatzen, zure edertasunak irabaziko du eta opari eder bat jasoko duzu zure erosketarekin.

CAMACHO Usaindegia. Bidekurutzeta, 24 ☎ 76 13 35



**Biolentzia,
mesfidantza,
sexua: zinea**

Biolentzia zinean betidanik eman dela esan daiteke: Bakeroen tirotoeak, misio sekretuak, gerrate historikoak... Gaur egun berriz Estatu Batuetatik datozkigun filmeen ehuneko berrogeitamarrak biolentzia horri sekulako mesfidantza gehitu dio. "Atracción fatal", "Durmiendo con su enemigo", "La mano que mece la cuna", "Mujer blanca soltera busca...", filme zerrenda luzea... Batzutan ezezagunekiko mesfidantza, gero eta sarriago gertu daukagun norbaitenganakoa, senarra, laguna eta azkenik, semea. "El niño que gritó puta" hamar urte inguruko mutilaren istorioa da, baina ez istorio arrunta, psykopata baten istorioa baizik.

Bestalde eta filme hauen alorrean jarraituz, biolentzia eta mesfidantza gaiei, sexuarena gehi diezaiekegu, batez ere "Instinto básico" famatuan eta "El cuerpo del dlito", Madonaren azken filmean ikus ditzakegun sexu harremanak direla eta. Hauek irakasten diguten filosofia honako hau litzateke: sexuari beldurra, arriskua, tentsioa eta mina gehitzen badiogu zirrara haundiagoa lortuko dugu, erlazioa aberastu. Horregatik asko gustatu zitzaidan aipatuko dudan azken filmea, "Lunas de hiel" hain zuzen. Bertan, bi pertsonaren arteko sexu harreman arrisksua erakusten da, baina aipatutako beste filme horien alde-rantziz, filme honen filosofia, nahiz eta filmearen igaroan berdintsu samar agertu, guztiz alderantzizkoa agertzen da bukaeran. Amodio-gorroto erlazioan sartu eta aurrera jarraitu ezker, bukaera ezin hobera heldu gaitzke.

Nora Askargorta



**Alderdi
politikoen
kontuak**

Filesa alderdi politikoen finantzaketa irregularraren istorio ilunetako da, eta hauteskundeak aurreratzearen pizgarri nagusienetakoa. Benetan paradoxa ematen du, izan ere legegintzaldi garbi bati hasiera emateko asmoz aurreratu omen dira hauteskundeak baina aurreratzeak gastua haztea dakar eta, ondorioz, zorra haundituko denez, kanpo finantzaketarako sistemak sofistikatzea baino ez da lortuko.

Alderdi politikoa eta beren sistema afiliatuek ordaintzen ez badituzte edota alderdi politikoen kanpainak desagertuz, Estatuak berak kontrolatutako kanpaina instituzionalak egiten ez badira, gero ere izango dira eskandalu eta irregulartasunak izan ere finantzaketarako bide bakarra faboritismoa baita, taloi edo txostenen truke lortzen diren faboritismoa. Alderdien sistemak berak sortarazten du korrupzioa.

Presio lobby ugari dago alderdi politikoen inguruan, edozer gauzaren truke nominatibo pixkat injektatzeko prest dagoen lobby ugari. Ondorioz, hobe da berekin edo berengandik denok elkarren berri jakinda bizitzea, eta arrazoi horregatik beharrezkoa da lobbyen lanari transparentzia pixka bat emango dion arautegi bat izatea.

Juan Antonio Migura

**ONENA
TINDATEGIA**

Barrenkale 29, BERGARA

**A
R
R
A
N
O**



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

LAGUN ARO

ASEGURUAK

Agentea:
RAMON IRAEGUI



ORDEZKARIA
BERGARAN

Ramon M. Lili 6
Tfnoa: 76 23 30
Faxa: 76 41 54
20.570 BERGARA



VID-ART

Bidriera artistikoak

**BIDRIERAK - MURALAK -
ISPILUAK-KRISTAL
BISELATUZKO
ATEAK - etab.**

**Azal eiguzu zure ideia
VID-ARTEk
egingo dizu.**

**BELANBIDE, Z/G - 20.570 BERGARA
Tfnoa: 76 23 30 / 76 41 54**

Beheko Taberna

Menestra eta konejoo
dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

TABERNA ZAHARRA

Jatetxea

**Bazkariak
eta
afariak**

Tfnoa 76 21 21
ANGIOZAR



Kiroldegiko Taberna



Labegaraleta Tfnoa: 76 56 41



□ Piratekin lanean

Koro Lasarte eta Iñaki Perurenak aurkeztuta, Euskal Telebistak gaztetxoentzat estreinatu berri duen "Piratak" programan (igandero arratsaldeko 3retan ETB-1ean) bergarar piratak ere badira: **Silvia Mendibil** errealizazio laguntzaile lanetan ari da eta **Pili Garzia** legazpiarra eta **Nartx Azkargorta** Taun-Tauneko kideak, berriz, programan agertzen den lorito sinpatikoari bizia emateaz arduratzen dira. *Barbarojak* burua altxatuko balu.

□ leeeeeup!!

Iñaki Perurena harrijasotzaile leitzarrak berak zituen bi marka hobetu zituen larunbatean Bergarako Frontoian; lehenbizi, asko kostata izan bazen ere, 318 kg.ko harria altxa zuen eta jarraian, 266 kg.ko harria esku bakar batekin, erretzasun haundiagoz. Halá ere, ez dakigu errekor hauek noiz arte iraungo duten, **Migeltxo Saralegik** igandean Tolosan 320 kg.ko harria altxatzeko asmoa azaldu baitu... Bergara Guinness errekorren liburuan agertuko ote?



AGOITZ Tapizdenda

San Lorentzo 25, Tfnoa: 76 11 58
BERGARA

HEMEN edertze aretoa



Matxiategi, 36 behea ☎ 76 58 88



□ **Antzuolatik Rwandarako laguntza**

Rwandako (Afrika) misio bati laguntzeko kanpaina bati ekin diote antzuolarrek, aipatutako misioan **Purita Iturbe** (argazkian) antzuolarra 15 urtetan misiolari baitago. Azken bi urtetako gerratearen ondorioz, larri samar omen dabilta han daukaten osasun etxean 40.000 errefuxiatu kaso egiteko. Beraz, laguntza eskeini nahi dutenek jantziak Antzuolako Parrokiko aretoan utz ditzakete eta dirua sartzeko, berriz, bi kontu korrante ireki dira, bata Kutxan (1024.332-7 zka.) eta bestea Euskadiko Kutxan (70131-0).




□ **Bergarar margolariak Oñatin**

Bergarako 29 margolarik **Ortonovon** (Italia) egin zuten margo erakusketa ibiltariak martxan jarraitzen du. Asteazkenean Kultur Etxetik Oñatiko bidea hartu zuten erakusketa osatzen duten koadroek (argazkian) eta bertako Kultur Etxean apirilaren 4tik maiatzaren 7ra arte izango dira ikusgai. Aukera berri bat gure artisten lana hobeto ezagutzeko...


Zertan dibardute ba?

AITOR ZABALETA



30 urteko kotxe gidari bergararra bigarren sailkatu zen igandean Eibarren jokaturako XXV. Arrateko igoeran, Andres Vilariño irabazlearengandik 4 segundutara.

MIGUEL OKINA



69 urteko margolari bergarar honek pintura estudio bat zabaldu du Barrenkale 21ean bere obra ezagutzera emateko, hainbat lan salgai daudela.

ORTZI
ERRETEGIA
ANGIOZAR ☎ 76 22 68

ZABALETA ERROTULOAK
Mota guztietako errotuloak.
Fatxadak, eskaparetek...
Amilaga (Gasolinera ondoan) Tfnoa: 76 57 34

Umore giroan

Estankora ardau bila

Estraperlo denboran Eibarren pasautakua da. Orduan, -askotan beintzat- etzan tabakorik billatzen estankuetan eta bai ugari tabernetan. Bardiñ burdiña erosterakoan, Arikixanera jua biarrian asko, Bilbora juaten ziran, Patxoneko kafeterixara, burdiña billa.

Orrala gauzak, jua zan beñ eibartar "bromista" bat Gazteluneko estankora eta esatetsa ugazabari.

- Gaztelu, ekatzu ardau txikitto bat.

Arek naiko asarre:

- Emen eztaok ardaurik!

Ta bestiak:

- Ene, taberna guztietan dao tabakua eta, emen, zergaitxik ezta-ba eongo ardaurik?

Iñork nai eztabena be falta

Alkartu da eibartar bat plaentxiatar batekin. Zeozer esan biar eta esatetsa "ciudad ejemplarrekua":

- Zelan zabizie Plaentxian? Ze bizimodu daukazue?

- Bizimodua? Gaizki, mutil. Ara zertara heldu garan: iñork sekulan nai izan eztabena be -biarra-, axe be etxakau oñ.

Pedro Zelaia

ORAIN DELA 20-25 URTEKO NOTIZIAK

SAGAR-PEREN ZILARREZKO EZTEIAK

Datoren domekan, hilak 22, sortu zeneko hogeitabosgarren urteurrena beteko du Sagar-pe elkarteak eta egun gogoangarri hori ospatzeko ekitaldi ugari antolatu dituzte. 1973-IV-19. La Voz de España. Bikuña.



Eskumaldean Jabier Gorate eta Jose Gorrotategi Sagarpeko ordezkariak orain 15 bat urte izandako sukaldaritza lehioketa batean.

SEI MILIOI TERDIKO KREDITOA MATZ-ERREKARI

"Patronato del Fondo Nacional de Protección al Trabajo" izeneko erakundeko Presidentearen erabakiz, Antzuolako "Matz-Erreka" kooperatibako sozioei 6.400.000 pta.ko


prestamoa eman zaie. Kreditu berri honi esker, beste 13 bazkide sartuko dira Kooperatiban eta lantegia ondo joanez gero, gehiago ere izan litezke bazkide berriak. 1968-IV-24. La Voz de España. Bikuña.

Asier Madinabeitia, Josune Iñarra eta Ane Goenagak hemerrotekatik bildutako notiziak

ileapaindegia
eder gela

disdira

Mahasterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55

 **IZADI**
Santiveri PILI GISASOLA

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua
Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5,
Tfnoa: 76 20 34

GURIDI Altzariak

**Era guztietako
altzariak**

Artakale 8, Tfnoa: 76 31 02

ITXASMENDI
Taberna

Barrenkale 36
Tfnoa: 76 50 64
BERGARA

**EGUREN
GESTORIA**

Maria Pilar Eguren Diez
Kolegiatutako administrazio gestorea
Simon Arrieta enparantza 3, behea.
☎ 76 21 65 / 76 24 45

BONOFOTOA



M. A. Elkoroberezibar



ARANTXA URIBE

ARANTXA URIBEk jaso du aste honetan ZIPRISTIN OINETAKO DENDAk emandako BONOFOTOKo saria.

Orain dela bi asteko argazkian agertzen zen baserriaren izena MEKOLALDE TORRE BASERRIA da.

ZORIONAK ARANTXAri eta besteok segi jokatzen!!

Zein da harmarri eta balkoi dotore hauek dituen XVI. mendeko etxe honen izena eta zein hiru kalekin egiten du kantoi?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____


Saria: ANEZKAK emandako saria

Moztu paper hau eta ekarri astebete baino lehen:

BERRIGARA Errotalde Jauregia Bergara

EMAIOSU BUELTA ORRIARI...





... EMOIZU BUELTA BAT ESPOLOITIK



ZIPRISTIN OINETAKOAK
☎ 76 57 36



anezka ☎ 76 59 25



ALDASORO OINETAKOAK ☎ 76 01 18



BERGARA PIEL
☎ 76 20 70



ZUHAIZTI TABERNA ☎ 76 59 22

ESPOLOIKO DENDARIAK

BISITA GAITZAZU

MURUAMENDIARAZ-GUTIERREZ

Euskal Ligako txapelkunekin

Iker Muruamendiaraz eta Igor Gutierrez bergarar pelotari gazteak (15 urte biak) Euskal Liga Txapelketako kadete mailako txapelkunak dira, larunbatean Gasteizeko Zaramaga pelotalekuan Vicente eta Sanchez Altzako bikotea 22 eta 16ko emaltzarekin gaintitu ondoren.



Muruamendiaraz eta Gutierrez etorkizun haundiko pelotariak.

- Altzako bikotearen kontra Gipuzkoako Txapelketako finala galdu eta orain irabazi...

- Bai, nik txapelketan zehar gustoen jokatu dudana partidua izan da - esaten du Ikerrek-. Ni (Igor) nahiko nerbioso egon nintzen, eta galtzen joan ginen arren, Reyesek, gurasoek eta lagunek animo asko eman zizkiguten eta azkenean irabaztea lortu genuen.

- Finala izan al da partidurik nekezena?

- Ez Lizarraren kontra han jokaturako semifinala

nekezagoa izan zen. Ordu t'erdiko partidua jokatu genuen eta Igorrek oso partidu bikaina burutu zuen -Ikerrek-. Ligan jokaturako 10 partidutatik Lizarraren kontra galdu genuen bakarrik eta semifinaletako biak irabazi genizkien.

- Orain zer?

- Elgetako 4 t'erdiko txapelketa jokatu dugu aurrejubenilen kategori-

an (63 partidu guztira) eta, horrez gain, Herriarteko Txapelketa jokatu dugu. Nik Antzuolarekin jokatu dut -aipatzen du Ikerrek- (bitxikeri bezala, bere etxea mugatik 10 m.ra besterik ez dago). Nik ez dakit oraindik Bergararekin jokatu dudana (Igor). Ondoren, bikote diferenteekin Añorgako jubententzako txapelketa jokatu dugu

uztailean.

- Zein txapelketa gustatuko litzaizueke irabaztea?

- Elgetakoa (biak). Oso prestijio handia dauka eta polita izango litzateke. Hala ere, Herriarteko Txapelketak ere badu bere gauza... baina oso nekeza da.

- Zelan ikusten duzue Bergarako pelotaren egoera?

- Ondo. Gero eta pelotari gazte gehiago irtezen dira eta maila ona lortzen ari dela esan daiteke. Gainera profesionaletan ere hor dira Etxaniz eta Zezeaga.

- Hōrien parera helzteko asmorik?

- Askok saiatu beharra dago horraino iristeko. Egia da orain gero eta gazteago debutatzen duela jendeak baina oso urrun ikusten dugu hori.

- Manomanistarako eta gaurko partidurako faboritorik?

- Eugik irabaztea nahiko genduke baina Belokik irabaziko du. Malaletxea daukalako gustatzen zaigu, pelotan ondo ibiltzeko beharrezkoa da ta. Manomanistarako? Neretzat Galarza (Igorrek). Nik uste dut Retegik irabaziko duela.

IRUDI
Erlojudenda
Bitxitegia

San Pedro 11
☎ 76 51 65

IRUK-BAT
IGELTSERITZA

☎ 76 24 74 20590 SORALUZE
Biltegia eta bulegoak: Zubieta, 24 behea
☎ 76 36 71 20570 BERGARA

ARREGI
Eraikuntza
materialeak

Biltegia Tellerian, Tfnoa: 76 27 93
Labegaralta Auzoa



1945eko kintoak orain 20 bat urte

1 945eko kintoek bihar ospatuko dute beren urteroko anaiarteko eguna. Goian duzuen argazkia, berriz, orain 22 urte ateratakoa da eta orduan orain baino talde haundiagoa biltzen zen, dudarik ez. Izatez 107 dira 1924ean jaiotakoak baina bihar 35 bat biltzea espero dute. Kuadrila majoa bilduko da, ziur egon. Zorionak eta ondo pasa!!

Argazkian eskerretik eskumara:

Makurtuta: Rosario Barrutia, Luis Artola, Marcelino Alberdi, Floren Labaien, Angel Gomez, Hilario Orbea, Jesus Arenaza, Javier Muñoz, Ignacio Iturbe, Roman Mujika, Vicente Oregi, Fidel Lopez, Joaquín Balzategi eta Iñaki Osinaga.

Zutik: Luis Bideluze, Francisco Leturia, Jesus Lazpiur, Jose Erdabide, Antonio Iñarra, Jesus Unamuno, Felix Azkarate, Angel Herran, Abraham Iglesias, Luis Arregi, Pedro Garitano, Juan Luarizaristi, Jose Lizazo, Jesus Egaña, Antonio Irazola, Francisco Reglero, Ignacio Madinabeitia, Andres Ugarteburu, Jose Garcia, Angel Aperribai, Luis Oregi, Miguel Okina, Emeterio Gabilondo, Rosario Alberdi, Eduardo Barandiaran, Felix Olaberria, Jacinto Fernandez, Agapito Larrañaga, Ramon Loiti, Jose Mari Larrañaga, Rufino Mendibil, ezezaguna, ezezaguna, Jose Antonio Ugarte eta Felix Santorcuato.

Argazkia: Luis Artola

Iletxo Ileapaindegi mistoa
BEGOÑA ARZELUS
 Fleming Doktorea, 7 ☎ 76 53 15
 20570 BERGARA

ederTU
ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK
 Barrenkale 23 Tfnoa: 76 29 65 BERGARA

ETXEBIZITZA

Garajea salgai Urrats azpian. 1.200.000 pza. ☎ 76 57 93.

3 pertsonarentzako pisua alokairuan hartuko genuke. ☎ (945) 45 03 48.

Garaje bikoltza alokairuan Burdiñatan. ☎ 76 57 69/76 13 23.

Artzamendin pisua salgai ☎ 74 40 82.

Garajea salgai Iparragirre kalean. ☎ 76 28 52. Eguerdian edo gauean.

Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gauez.

Pisua alokatzen da Zurraderon. ☎ 76 23 27.

Garajea alokatzen da Zurraderon ☎ 76 21 39.

Pisua salgai Zurradero 2.ean. ☎ 76 53 30 (gauez).

Garajea salgai Urrats-berna azpian. ☎ 76 57 93.

Pisu haundia salgai Urteagan. Terraza, sukaldea, jangela, 3 logela... Merke. ☎ 76 50 18

Asteburuetan Madrillera joan-etorria egiteko laguna behar dut ☎ 79 53 12.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 55 22.

Pisu edo buardilla bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 58 37.

Garajea salgai Ozaetan ☎ 76 56 94.

Kerosenozko estufa japoniarra salgai ☎ 76 55 84.

Eskiatzeko botak (44a) eta Snow-Board eskiatzeko tabla salgai ☎ 76 16 33 (Iñaki).

DENETARIK

Mendiko bizikleta (GAC) salgai ☎ 76 47 94.

Kanping denda salgai (haundia). ☎ 76 26 73

Nintendo bat salgai. 6.000 pta. Bi mando. ☎ 76 58 93 (Unai).

MOBYLETTE CADY motor bat salgai. ☎ 76 54 73 (lan orduetan).

Skiak (1.40 zm) eta botak (35), saltzen ditut. Prezio ona. ☎ 76 21 64.

Egunero Bergararik Zornotzara joan nahi dut. ☎ 76 44 46 (Xabier).

Paseozko bizikleta (bolero) salgai. Oso egoera onean. ☎ 76 49 56.

Etxeko gela bikoitz bateko altzariak salgai. Egoera onean. ☎ 76 18 61.

Motorrean ibiltzeko kasuko integrala erosiko nuke. Merke bada hobea. ☎ 76 10 04.

Errekuperatutako eta berriztutako altzariak salgai. ☎ 76 25 12 / 76 82 17.

Nissan Vanette furgoneta bat (SS-AG) salgai. ☎ 51 51 41.

Ileapaindegiko altzari eta lan tresna guztiak salgai. Ia berriak. ☎ 76 25 38 / 76 23 37.

Marketari lana duen sarrierako altzaria salgai. ☎ 76 32 51.

Software-dun 2.400 BPS modema salgai. Berri-berria. Prezioa interesgarria. ☎ 76 51 62.

SEGA Megadrivea salgai. (3 jokurekin). 18.000 pza. ☎ 76 45 21 (Jabi).

LANA

Neska batek edozein motatako lanak egingo lituzke. ☎ 76 38 90.

AutoCAD, FP2 Informatikan praktketan lan egingo nuke. ☎ 73 33 42.

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Itzulpen eta interprete lanak egingo nituzke. (Ingelesa zein alemana) ☎ 76 46 54.

Etxean lan egiteko aukera ematen dizugu. Aretxabaletako 161 postakutxara (20550) bidalizu karta bat.

Hildakoak

Pedro Sasieta Bolinaga
apirilak 15, 63 urte
Eliseo Gonzalez Larrañaga
apirilak 17, 72 urte
Vicente Garitano Astigarraga
apirilak 18, 63 urte

Jaiotakoak

Irene Aguayo Alzayate
apirilak 15
Iñaki Arrieta Inza
apirilak 17

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

IGARZA
MERZERIA
LENZERIA

D. IRALA 5
Tlfnoa: 76 24 88 BERGARA

ERRETILAK
ETA
ERAIKUNTZARAKO
EGUR JARTZEA

☎ 76 59 54
BERGARA



ETXETXO-OLAZABAL

MOTA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK

ELECTRICIDAD
ELKAR
ELEKTRAGINTZA
☎ 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8 BERGARA

☎ 76 00 00